

Burbuilaren ordainsaria

Azkeneko hamarkadan finantza krisiak periferiako herrietan lehertu izan dira. Oraingoak Amerikako Estatu Batuetan (AEB) du epizentroa. Herralde honetako ekonomiaren larritasuna aspalditik aurreikusten zen, bertan ematen baita munduko defizit mailarik garaiena, arlo fiskalean zein kanpoko merkataritzan. Bestalde finantzen globalizazioak zelaia libre uzten du finantza erakundeek kontrolrik gabeko eragiketa espekulatiboak egin ditzaten. Kontestu honetan eman da udan AEBetako higiezin *burbuilaren* eztanda.

Higiezinaren fondoak dira leher-tu direnak, baina ondorioak haratago doaz, nazioarteko finantza sisteman bertan eragin baitu. Krisi honen ondorioak nozitzen ari gara dagoeneko: dolarraren depreziazioa, inflazioaren berpiztea nazioartean eta, honekin lotuta, munduko interes tasen goranzko joera indarberritua –hartzekodun ororen eta inbertsioaren kalterako–.

Leherketaren atzean eragiketa espekulatuak egon da hemen ere. AEBetako egungo interes tasa %5,25 da, baina 2003an %1 historikora jaitsi zen. Oinarri honen gainean enpresak eta finantza erakundeak etxebizitza erosteko itsu-itsuan hasi ziren maileguz ematen. Honela, AEBetako kontsumitzaileen zor guztiaren %80 mailegu hipotekarioekin lotzen da. Eraikuntzak eta etxebizitzaren erostek hazkunde aparta ezagutu zuten. Etxebizitzaren prezio igoerak mugagabea zirudien. Horrez gain, mailegu hipotekario hauetako asko “titulu finantzario” bihurtu zituzten eta beste finantza erakunde batzuei saltzen hasi ziren arrisku gabeko titulu gisa. Honela mailegu hipotekarioen arriskuen “zuriketa” gauzatu zen. Titulu hauen erosleei interes garaiak ordaintzen zizkieten. AEBetako finantza erakundeak ez ezik Europa eta Asiakoak ere titulu hauek erabili dituzte finantzazio iturri gisa: itxuraz arriskurik gabeko “titulu” bihurtutako arrisku handiko bilioika dolar ugari dago munduan zehar barreiatuta gaur egun. Soilik AEBe-



DANI BLANCO

tan hipoteken gaineko bigarren mailako titulu hauek bertako banku-aktibo guztien %49 dira.

Irabazpideek aurrera egin zuten harik eta interes tasak igotzearekin AEBetan ordain ezintasuna hedatzen hasi zen arte. Eta bigarren mailako tituluen jabeek hauek merkatutik erretiratzeko orduko, nazioarteko finantza sistema osora hedatu da krisia. Finantza erakunde askok porrota nozitu dute eta mendebaleko Banku Zentral ugari finantza merkatuetan likidezia txertatu behar izan dute sistemaren erabateko porrota saiheste aldera. Berriro ere eskuhartze

publikoa, finantza baliabide publikoekin eginga, finantza erakunde gehiegikeriaren kalteordainak ezartzea etorri da. Finantza erakunde pribatuaren hondamendia ekiditeko, mendebaleko gobernuek ez dute errepatorik beste hainbat arlotan zorrozki aplikatzen den doktrina liberala hemen alboan uzteko.

AEBetako Erreserba Federalak interes tasen behin-behineko jaitsieraren bidea hartu du etxeko krisia gainditzeko baina ez dirudi luzeko mugimendua izango denik. Izan ere 1980ko hamarkadan eta duela bi urtetik indarrean egon den ekonomi politika probetxuzkoa izan baita

AEBentzat: interes tasak igoz atzerriko kapitalak erakarri

etxeko zor erraldoia estaltzeko, eta dolarraren makina astinduz hornitzaileak (Txina, Japonia edo Europa) ordaintzeko. Honen guztiaren

xedea estatubatuarrei ez dagokien gehiegizko kontsumo mailari eustea izan da kostuak munduko enparaura hedatuz. Munduko finantza egonkortasuna hankaz gora eta mundua atzeraldi berri

baten atarian ipintzea *American way of life* delakoa ziurtatzeko kalte kolateralak baino ez da AEBetako *neocron* eta gobernu liberalarentzat. ■

«

Finantza erakunde pribatuaren hondamendia ekiditeko, mendebaleko gobernuek ez dute errepatorik beste hainbat arlotan zorrozki aplikatzen den doktrina liberala hemen alboan uzteko

»

